

Enfoka-Trends urria 2019

“SERBITIZAZIOA, MERKATU-NITXO BAT PRODUKTUAZ HARAGO”



Gaur egun momentu historiko bat bizitzen ari gara teknologia disruptibo baten agerraldiarekin: digitalizazioa, produkzio- eta banaketa-sistemetarako baita komunikazioaren edo ezagutzaren transmisioaren teknologiei dagozkien horietarako ere.

Gizarte-ereduak eta negozio-ereduak teknologia horien eraginpean daude orain. Izan ere, urte gutxitan, eragina izan dute hainbat negoziotan: disko-dendak, liburu-dendak, argazki-dendak, zine-aretoak eta bideoklubak, besteren artean. Berriro diseinatu dira prozesuak, kostuen murrizketek justifikatuak, eta horrek ondorioak izan ditu, besteren artean nabarmentzekoak:

- Ondorio bat izan da, produkzio- eta banaketa-enpresek aurreikusi gabea, produktua zerbitzu bihurtu izana eta produktuaren eta zerbitzuaren osagarritasuna. Orain musika ez da erosten, Spotify bezalako zerbitzuetan alokatzen da, eta ez dira pelikulak saltzen, Filmin edo Netflix bezalako plataformetan alokatu baizik. Argazkiak ez dira jada errebelatzen; kontsumitzaileak berak album digitalak egiten ditu eta online partekatzen ditu hodeian espazioa alokatuz.

Produktua ez da jada erosten; produktua erabiltzeko zerbitzua ordaintzen da, produktuaren serbituzio-prozesu bat gertatu da, enpresa ugari aprobetxatzen ari direna beren lehiakideengandik bereizteko.

- Gauzen Internet, edo beste modu batera esanda, gailu adimendunak programa batera konektatuak, zeinak harpidetza bidez eskaintzen dituen zerbitzuak; horren adibide dira bainugelako baskulak, erabiltzailearen pisua erregistratu eta haren osasun-egoera detektatzen dutenak, eta aholkuak ere ematen dituztenak egoera fisikoa hobetzeko helburuz. Horrela, merkataritza/kontsumitzaile harremana salmenta-ekintzaz harago doa zerbitzu bat kontratatzean.

Aldaketa kontzeptual hori itxuraz digitalizatu ezin diren beste sektore batzuetara hedatzen ari da, eta hala agertzen ari dira negozio berritzaileak, besteren artean alokatzen dituztenak goren markako poltsak eta osagarriak, festa-jantziak, haurdunaldiko arropa, bitxiak, brikolajeko erremintak edo partikularren ibilgailuak.

Prozesu horren eraginpeko saltokiek balioa duten zerbitzuak ematea planteatu beharko dute beren banaketa-jarduerarekin lotuta.



BIBLIOGRAFIA

- Fashion United (2019). H&Mk arropa alokatzeko bere programa barneratu du Txinan YCloset-en eskutik. 2019ko abenduaren 11n berreskuratua hemendik: <https://fashionunited.es/noticias/moda/h-m-introduce-en-china-su-programa-de-alquiler-de-ropa-de-la-mano-ycloset/2019120931730>
- El Correo (2019). Servitización, el siguiente paso de la industria. 2019ko urriaren 21ean berreskuratua hemendik: <https://www.elcorreo.com/economia/tu-economia/servitizacion-20190530174911-nt.html>
- Vector ITC (2019). La Servitización, concepto clave en los modelos comerciales. 2019ko urriaren 21ean berreskuratua hemendik: <https://www.vectoritcgroup.com/tech-magazine/digital-transformation/la-servitizacion-un-concepto-a-tener-en-cuenta/>
- Business insider (2019). 7 cosas que jamás pensaste que podrías alquilar. 2019ko urriaren 21ean berreskuratua hemendik <https://www.businessinsider.es/7-cosas-jamas-pensaste-podrias-alquilar-197498>
- Xataka (2019). Qué báscula de baño inteligente comprar: guía de compra y modelos destacados. 2019ko urriaren 21ean berreskuratua hemendik <https://www.xataka.com/otros-dispositivos/que-bascula-bano-inteligente-comprar-guia-compra-modelos-destacados>
- Banco Interamericano de Desarrollo (2017). Servitización: la región frente a los nuevos modelos de negocios basados en servicios. 2019ko urriaren 21ean berreskuratua hemendik <https://conexionintal.iadb.org/2018/05/02/servitizacion-la-region-frente-a-los-nuevos-modelos-de-negocios-basados-en-servicios/>
- SPRI (2017). Serbituzioa, beste merkatu-nitxo bat produktuaz harago. 2019ko urriaren 21ean berreskuratua hemendik <https://www.spri.eus/es/basque-industry-comunicacion/la-servitizacion-otro-nicho-de-mercado-mas-alla-del-producto/>
- Repensadores (2015). Servitización: ¿cómo añadir servicios a mi producto para que sea más innovador? 2019ko urriaren 21ean berreskuratua hemendik <http://repensadores.es/servitizacion-como-anado-servicios-a-mi-producto-para-que-sea-mas-innovador/>
- TEDxGalicia (2015). Genis Roca - La sociedad digital. 2019ko urriaren 21ean berreskuratua hemendik <https://www.youtube.com/watch?v=kMXZbDT5vm0>
- El mundo (2011). Amazon lanza un nuevo servicio de alquiler de libros de texto. 2019ko urriaren 21ean berreskuratua hemendik <https://www.elmundo.es/elmundo/2011/07/19/navegante/1311067709.html>
- De lujo blog (2011). Alquiler de Joyas. 2019ko urriaren 21ean berreskuratua hemendik https://www.delujoblog.com/joyas/joyerias/alquiler_joyas.html
- Emprendedores. (2010). Alquiler de ropa para mujeres embarazadas. 2019ko urriaren 21ean berreskuratua hemendik <https://www.emprendedores.es/ideas-de-negocio/a21692/ropa-premama/>

LOTURIKO WEBAK

- Autoen alokairua partikularren artean: <https://www.socialcar.com/>
- Aisiarako, etxerako produktuen eta kirol materialaren alokairua Bilbon: <https://www.aloklub.es/es/>
- Auto pribatuen alokairua aireportuetan parkinga doan izatearen truke: <https://angel.co/company/flightcar>
- Erreminten alokairua: <https://www.milherramientas.es/>